

# Ongizatea Ezkerrez

JON SARARUA



**HITZA** urduri ekiditen dute. kapitalismoa zalantzan jartzen ez dira ausartzen, beren buruari ezkerria deitzen dioten alderdiak. Wojtyla Aita Santua askoz urrunago iristen da sistema ekonomikoaren kritikan. Ongizatea da beren diskurtsoaren ardatza. Beren ahotan «ezkerria» entzutean Errioxa jatorrizko izendapena datorrit gogora. Jatorria marka komertzial bihurtuta, denborekin marka jatorri. Inork ez ditu ideiak argi eta nahasmenetan, ezkerriaren merke dago. Baina badatzo proba berriak.

Ongizateaz mintzo dira. Eta miloika afrikar ate joka, milaka, zirrikituetai sartuta. Norentzat ongizatea? Europan, estatuan eta laster Euskal Herrian desafioa izango da inmigrazioa. Afrika gora dator, europako ongizateak (hain zuzen ere) mendetan sortu duen eta orain neurri eusteineraino hazi duen miseriak bultzatuta. Arazoa egundala-mundukoa da eta jarrera-hartzea ezin ideologikoa-goa. Lurra? Mugak? Eskubideak? Nazioa? Gizateria? Aukerak, onarpena ala errepresioaren aregotza (ordena ekonomiko justua ez noa aipatu ere egitera). Etorkinek plangintzak pikutara bidal ditzaizkete, justizia soziala berdefinitu, arrazismoa sortu, kultura aldatu. Ongizatea, ezkerria, Europa, Oi, oi, oi.

Datozela. Nahas dezatela Europa xurgatzailea. Ez dago mugarik, ez gurean ere. Gaitzerdi euskara afrikarrek galtzen badute. Bizitzeko eskubidea hizkuntzarenaren aurretik dago. Gainera marroko-tarek berehala ikasten dute «kaixo laguna». Horra dejadak, ezkerrez onak omen diren pelotarietat. Aste honetan etorkin batzuo gose greban daude Frantzia. Lehenak dira.

# • DEIA

## Salaketak

Oraintxe bertan, emirrenen poliziak basakeria gogorarekin giltzaperatzen eta torturazten ditu Kuwaiteko palestinarrek, nazioarteko presioak faltan botatzen diren bitartean, erregimenak bere ustekeria nabarmenenak makilatzeko ardurua har dezan.

(...)

Fatxada demokratiko itxuraren kamuflatutako dozenaka herrik bere menpekoen eskubideak zapatzen dituzte, erregubatasun pargabearrekin. Bere egoera estrategikoaren edo egindako zerbitzuen arabera, bortxaketa horiek salatu egingo dira edo ez. Imagina ezazue zer gertatuko den Kuwait bezalako herrietan, arreta txikiena hartzeko gai ere ez direnak, askatasunak nolabait errespetatzen dituzten itxura egingoak.


CARLOS PEREZ  
URALDE / 1991-V-16

# • Diario de Navarra

## Belgradoko usurpazioa

Gerra zibila eta desastre ekonomia ekiditeko, Jugoslavia zentralista eta federalesko nazioek atzerriko potentzien laguntza politikoa behar dute. Mendealdekoko gogorretik —adibidez— Jugoslavia

# HEMEROTEKA



ITURRIA / SUD OUEST / 91-V-16

viako krisiaz hitzegiten dutenean, ez dute aipatzen Estatu horretako errealitateak. Askotan egiten ez diren herri horri buruzko aitortpenen arabera, —beraien iritziz— demokrazia printzipioei jarraiki ekin beharko lizaiok. «Desakordio» konponbideak iradoki dituzte, hala nola, «alderdi interesatuen» arteko elkarrizketa, indar fisikoak erabiltzeari uko egitea eta gutxiengoen eta gehiengoen giza eskubideak errespetatzea. Batasunaren beharra azpimarratu dute gehien ekonomiarazi larrietatik ateratzeko. Aholku onak dira, baina ez dute ezer laguntzen, ezer ere ez.

LUKA BRAJNOVIC / 1991-V-16

# • EL INDEPENDIENTE

## Tipo horiek

Orokorrean hitzegiten dut: Gortean eta Senatuan dauden tipo horiek benetan ordezkatzen al gaituzte? Ni behintzat ez: ni responsableago naiz, eta oraintxe bertan bota ahal izango banitu, oraintxe bertan botako nituzke. Batzuk joaten dira, eta lasai asko uzten die beste batzuei botoaren botoia zapaltzeko enkargua; beste batzuk enkargua eman gabe joaten dira, eta auziak zorabiatu egiten dira Quorum ezagatik. Eta okerrena da

ez dela ezer gertatzen; portaera ohizkoa dela esaten dutela; laguneria oso zabaldua dago; eta, hau-teskudegaitik —eta kazetari «putaseme» horiengatik— izango ez balitz, ez genuke elkar ulertuko.

ANTONIO GALA / 1991-V-16

# • EL MUNDO

## Sepsia demokratikoa

Aspaldian erakutsi zuen Robert Michelsek, alderdi politikoak, demokratikoen aitortuenak ere bai, bere buruari eusten dion elite gaizki elikatu baten oligarki autoritarioak ezarritako burdinezko lege baten menpe daudela. Horrek esan nahi du, partiduen demokraziak autoritarismo progresiboaren birus intrinsekoa duela, barru barrutik jaten doakiona.

Gure demokrazia lehenegi ari da usteltzen, azkarregi eta sakonegi. Sepsia alarmagarri izatera iristen ari da. Botoa da demokraziaren antibirus ahalmenentsuetakoa. Baina gauza guztiak hori adierazten dute, alegia, sepsia urruegi joan dela eta birusa jadanik ez dela operatiboa. Ez du pena merezi aplikatzea! Zertarako botoa eman!

JOSE IGNACIO RUIZ  
OLABUENAGA / 1991-V-16

# Ixidro Montzon

TXILLARDEGI



## BERGARAKO

Montzondarrek bi anai mundura zituzten. Baina bata bil duen Euskal Herriaren arreta, Telesforok; bigarrenak, berri, orain hil den Ixidrok,

kondarrak besterik ez bilduz.

Bi urtez gazteagoa izanik, umilki onartu zuen Ixidrok anaia gehienaren buruzagitzari hori; eta jator zerbitzatu. Ixidro itzalean desageru bezala egin zen Telesfororen gibelean.

Mitresi egiten zuen Ixidrok bere anaia; eta mitetismorik gabe, zinez berdin senditzen eta pentsatzen zuelako, orpo orpo jarraitu zitzaion. Oraindik ere neure barruan ikusten bide dut, Donibaneko «Mende Berri» etxe todean, negarrez eta malkoei ezin gaituririk, Telesfororen gorpua hantxe zegoelarik.

Arkitecto ospetsua izan zen Ixidro Ameriketako bere deserri-aldian; eta Ipar Euskal Herrian bere lanak burutzen zituenean ezagutu nuen nik, baita zenbait obratan injinari gisa laguntza eman ere.

Batzutan, uste dudanez, Telesforok baino azkarkiago ulertzen zituen egoera berriak; eta egokior bere anaia bideratzen. Baina Telesfororen izari apartak utzi zuen izalean.

Bergarar abertzale handi bat hil zaigu oraingoan; ez dut nik zalantzarik egiten. Egin-en irakurle ohik ongi dakite hau: azkeneko urte hauetan Ixidrok argitara zituen izkribuek, laburregi zirenean ere, ez baitzuten dudarako zirrikiturik uzten.

Beude, beraz, bizirik bi anaiei oroitzenapen abertzale guztion bihotzetan.

# ZUZENDARIARI

## Hain ezaguna ez den Karlos Santamariaren fazeta bat

Oraindik orain, bi aldetikako omenaldiak izan ditu: Eusko Ikaskuntzak emaniko Manuel Lekuona saria eta Foru Diputazioaren urrezko domina eta Gipuzkoako seme kuttun izendatzea.

Omenaldi horretako ospakizunetan eta horien edukia zabaldu duten komunikazio bideetan gipuzkoar ospetsu honen lana eta figura goraiatu dituzte.

Zientzia eta pentsamendu gizon bezala duen izatera nabarmendu da, euskal kultura eta euskarekiko bere aldeko goraipatu. Euskal Unibertsitatearen bultzatzaile, Donostiarako zenbait Unibertsitate sail lortu zituen eta Santo Tomas Lizetaren sortzailekide bezala aguritzen da.

Bere ekintzetatik zenbait, «txikitat» jota edo ez dira

aipatu egun honetan. Eta hauetariko bat agertu nahi genuke hemen: Hernaniko Karmelo Labaka Lanbide ikastetxea sortzean izan zuen eskuhartzea.

Han, 1940an, Hernaniko erretoer Karmelo Labaka zela, honek, Karlos Santamaria eta laguntzaile talde txiki batek lanbide Eskola bat sortzeari ekingo diote. Gizon haiei bere ahaleginean, «gazteri langileari Hezkuntza oso eta lanerako gaikuntza» emateko zuten ardurak bultzatu eta eragin ziren. Zailtasun askoren artean, 1948an eta 20 ikasleekin bere ihardunaldiari ekin zion eskolak, Karlos Santamaria, Eskolako Patronato Batzordeko Buru izan zen urte askotan.

Badakigu Karlosek benetako xeraz begiratzen diola Eskola honi eta gaur honek duen dinamismo eta eraginaz ardo dela. Gure erantzuna ere bidekoa da eta gaur Eskola osatzen dugunok bat egiten dugu bere merituak herriaren aurrean agertzeak ekar lezakeen pozarekin.

Eta bere ikastetxe honekiko lana, ez da guk guzti onartzen dugun bere gizar-tearekiko sentiberatasunaren ezaugarri bat baizik. Eta fazeta hori ez da askiatsia izan egun hauetan edo eta oraindik gehiago esateko, bere nortasunaren alde hori nahiko ahaiztua izan da.

Beraz bidezko deritzogu hemen egiaztatzeari.

FELIX ARTETXE  
HERNANI

## Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

# PERTSONAIA



## Edith Cresson

Michel Rocard joan omen dela orain hortik ez ahal du izango diru ta lan faltik Edith Cresson kargura badator ondotik edozein izan dadin ez zaida inportik.

JEAN PIERRE MENDIBURU

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NIREA AZURMENDI

LUZIFEN ETXEZAHARRETA

INAKI URUA

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Gerentea:

INMA GOMILA



Batzorde-Parekidea: 72564 E. Lege Gordailua: SS 800/90

## HELBIDEAK

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1./20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irriziti dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11